

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak Foru Erkidegoko kirol instalazioen erantzukizun zibila arautu du

Arauk aseguruako polizetan barne hartu beharreko gutxieneko arriskuak eta kalte-ordainen zenbatekoa zehazten du

Viernes, 17 de junio de 2011

Nafarroako Aldizkari Ofizialak, joan den ekainaren 6an, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren [foru agindua](#) argitaratu zuen. Foru agindu horrek Foru Erkidegoko erabilera publikoko kirol instalazioetako titularrek egiten dituzten erantzukizun zibileko aseguruaren kontratuak arautzen ditu.

Betebehar hori arriskuen prebentzioari buruz ari den [Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen](#) 77. artikuluan ezarritakoaren ondorioz sortu da. Titulartasun publikoko instalazioen kasuan, Foru Legeak erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguruak kalteak eta galerak bere gain hartzen dituen beste sistema batez ordezkatzeko aukera ematen du.

Arau berriak, [NAOn argitaratu zenetik](#), kasuan kasuko polizek barne hartu beharreko gutxieneko arriskuak, polizen eremu geografikoa eta denborazkoa, aseguratzailerak bere gain hartu behar dituen prestazioak eta berrmatu edo aseguruak barne hartzen dituen gutxieneko zenbatekoak (ezbehar bakoitzeko eta urteko ez dira 300.000 euro baino gutxiagokoak izango, ezta biktimako 150.000 euro baino gutxiagokoak ere) ezartzen ditu. Hitzartu beharreko gainerako kontuak kontratua egiteko askatasun eta aldean borondatearen autonomia printzipioaren arabera zehaztuko dira.

Foru Erkidegoko kirol administrazioak aseguruako polizak edo, titulartasun publikokoak izanez gero, kalte eta galerak beregain hartzen dituen sistema zein den erakusteko eskatu ahal izango die, edozein unetan, Foru Erkidegoko erabilera publikoko kirol instalazioetako titularrei.